



	Produktuak Fibra 600 Mb /ADSL	Hileko kuota
<input type="checkbox"/>	Movistar Conecta Max¹	54,90 €
<input type="checkbox"/>	Movistar Conecta Max TV box²	54,90 €

(1) Movistar Conecta Max: Hileko kuota 45,38 € (54,90 € BEZa barne). Hau hartzen du barne: Finkotik: bakarkako linearen kuota, internet 600 Mb/600 Mb (Fibra Simétrica 600 Mb), internet 20 Mb arte (ADSL Máxima Velocidad/ Acceso Fijo Radio), kontratatutako aukeraren arabera, dei mugagabeak finkoetara (*). Mugikorretik: Linea mugikorra dei mugagabeekin, SMS mugagabeekin eta internet mugikorra 30 GB/hil abiadura handiengan. Behin datuen frankizia gaindituta, Bezeroak abiadura handiengan nabigatzen jarraituko du erabilitakoagatik ordaintzeko modalitatean, 3 zent/MBeko prezioan, 4 GB gehigarri arte. Behin frankizia eta erabilitakoagatik ordaintzeko modalitateko 4 GB gehigarriak gaindituta, abiadura murriztuan nabigatzen jarraitu ahal izango da. 10 €-ko erabilitakoagatik ordaintzeko modalitateko gehienezko zenbatekoa ezartzen da nabigazioan, aldatu ahal izango dena doan deituta 223528 telefonora, Mi Movistar aplikazioan edo 1004 zenbakira deituta. Bezeroak zenbateko hori 0 €-tan ezartzeko aukera du; kasu horretan, ez zaio erabilitakoagatik ordaintzeko modalitateko ordaintzeta aplikatuko abiadura handiko 4 GB gehigarriak berriro eskatzen ez dituen arte. Nabigazioan erabilitakoagatik ordaintzeko modalitatearen zenbatekoa behin aldatu ahal izango da fakturazio-epe bakoitzeko.

(2) Movistar Conecta Max TV box: Hileko kuota 45,38 € (54,90 € BEZa barne). Hau hartzen du barne: Finkotik: bakarkako linearen kuota, internet 600 Mb/600 Mb (Fibra Simétrica 600 Mb) edo internet 11,5 Mb arte (ADSL) erabilgarri dagoen eta kontratatutako aukeraren arabera, TB TDT kanalekin, U7D (Últimos Siete Días) eta Movistar+ en dispositivos Multiacceso Hogar-ekin, eta dei mugagabeak finkoetara (*). Mugikorretik: Linea mugikorra nagusia: dei mugagabeak, SMS mugagabeak eta Internet mugikorra 30 GB/hil abiadura handiengan. Bigarren linea mugikorra: Ahots-deietan erabilitakoagatik ordaintzeko tarifa: 40 zentimo (BEZa barne) dei-erazpenagatik eta 0 zentimo/minutu (gehienez 120 minutu dei bakoitzeko), internet mugikorra 5 MB/hil abiadura handiengan. Modalitate guztiek erabilitakoagatik ordaintzeko modalitateko abiadura handieneko nabigazioa hartzen dute barne: behin datuen frankizia gaindituta, Bezeroak abiadura handiengan nabigatzen jarraituko du erabilitakoagatik ordaintzeko modalitatean 3 zent/MBeko prezioan 4 GB gehigarri arte. Behin frankizia eta erabilitakoagatik ordaintzeko modalitateko 4 GB gehigarriak gaindituta, abiadura murriztuan nabigatzen jarraitu ahal izango da. 10 €-ko erabilitakoagatik ordaintzeko modalitateko gehienezko zenbatekoa ezartzen da nabigazioan, aldatu ahal izango dena doan deituta 223528 telefonora, Mi Movistar aplikazioan edo 1004 zenbakira deituta. Bezeroak zenbateko hori 0 €-tan ezartzeko aukera du; kasu horretan, ez zaio erabilitakoagatik ordaintzeko modalitateko ordaintzeta aplikatuko abiadura handiko 4 GB gehigarriak berriro eskatzen ez dituen arte. Nabigazioan erabilitakoagatik ordaintzeko modalitatearen zenbatekoa behin aldatu ahal izango da fakturazio-epe bakoitzeko. Telebista-zerbitzua ez da satellite bidez eskuragarri egongo.

(*) Kontratututako produktua barne hartzen duen frankizia gaintzen duten mugikor nazioarteko dei finkoek honako kostu hau izango dute: dei-erazpena: 0,2893 €, (0,35 € BEZa barne) eta minutuko prezioa: 0,2066 €, (0,25 € BEZa barne).

Penintsulan eta Balear uharteetan %21eko BEZa aplikagarri, Ceutan %10eko IPSIa, Melillan %8ko IPSIa eta Kanarietan %7ko IGICa.

Movistar Conecta Max produktuaren modalitate guztietan sartutako deiak eta SMS/MMSak interperpersonalak dira. Halaber, dei finkoek helmuga nazionala dute eta deiek, SMSek eta internet mugikorra bidezko nabigazioak jatorri eta helmuga nazionala dute, eta Europar Batasuna, Islandia, Liechtenstein, Norvegia eta Erresuma Batua ere hartzen dituzte barne. Frankizia guztietatik kanpo gelditzen dira tarifa bereziko (902, 901, 060, OXY, 118AB..., besteak beste) eta tarifakazio gehigarriko (905, 80X) zenbakiei zuzendutako deiak, 2. edo 3. gunean edo estaldura berezietan sortutako edo hara zuzendutako ibiltaritz-trafikoa, nazioarteko deiak eta SMSak (jatorria Espainia eta helburua beste edozein herrialde) eta Premium zerbitzuak.



1.XEDEA ETA BALDINTZEN ONARPENA.

Ondoren deskribatutako baldintza berezien (aurrerantzean, "Movistar Conecta Max Baldintzak" edo "Baldintzak") helburua Telefónica de España, S.A.U. (aurrerantzean, "Movistar") eta Bezeroaren arteko harremanak arautzea da, Movistar Conecta Max produktua (aurrerantzean, "Movistar Conecta Max") emateari dagokion guztian, "Movistar Conecta Max zerbitzuaren Kontratuan" Bezeroak aukeratutako kontratu-modalitatearen arabera, zeinari Baldintza hauek gehitzen zaizkion.

Baldintza hauek erreserbarik gabe onartzea ezinbestekoa da Movistar-ek Movistar Conecta Max zerbitzua eman dezan. Zentzu horretan, Bezeroak adierazten du Baldintza berezi hauek irakurri, ulertu eta onartu dituela, kontratazioa egin aurretik beti bere eskura daudenak webgune honetan: www.movistar.es/contratos.

2.MOVISTAR CONECTA MAX PRODUKTUAREN KONTRATAZIOA.

Bezeroak, Movistar Conecta Max kontratatzean, telefono-linea finko bat izango du banda zabalarekin (ADSL, Zuntza edo Movistar Internet Radio zerbitzua -aurrerantzean, Acceso Fijo Radio-, baldin eta aurrekoen estaldurarik ez badu eta alternatiba gisa instalatu badaiteke) Movistar-ekin, eta Telefónica Móviles España, S.A.U. enpresak operatutako kontratuko linea mugikor bat (aurrerantzean, "Conecta Max linea mugikor nagusia"). Era berean, eta kontratu honen azalean agertzen diren modalitateen artean, bezeroak beste kontratupeko linea mugikor bat ere izan dezake, Telefónica Móviles España, S.A.U.-k emandakoa. Linea horren kudeaketa Movistar-ek ere hartuko du bere gain, eta kontratu honen azalean azaltzen dira haren prestazioak.

Nolanahi ere, linea finko eta mugikorrak pertsona fisiko edo juridikoaren identifikazio-zenbaki berarekin kontratatuta egongo dira (NAN/IFK/Egoiliar-txartela/Pasaporte/AIZ/NIVA).

Aurrekoaren ondorioz, www.movistar.es webgunean argitaratuta dauden baldintza orokor hauetan zehaztutakoak osatu egiten ditu baldintza berezi hauek: (I) azken erabiltzaileen publikoarentzat eskuragarri dagoen telefono-zerbitzuaren abonu-kontratu mota orokorraren baldintza orokorrak, (II) publikoarentzat eskuragarri dagoen banda zabalaren zerbitzuaren baldintza orokorrak edo, hala badagokio, Movistar Internet Radio zerbitzuarenak, (III) Acceso Fijo Radio zerbitzurako baldintza orokorrak, (IV) Movistar mugikorren zerbitzuaren baldintza orokorrak, (V) Internet mugikorraren zerbitzuaren baldintza orokorrak, eta, hala badagokio, satellite bidezko TB hornikuntza-zerbitzua.

Bezeroak kontratatutako aurrezki-fideltasuneko moduluak edo BEZEROAK aukeratutako Movistar Conecta Max modalitatearen barnean dauden edozein zerbitzuren gainean kontratatuta izan dezakeen edozein promozio, bateraezinak dira Movistar Conecta Max produktuarekin, eta, beraz, baja emango zaie kontratazioa egin aurretik.

Bezero bakoitzak ezingo du Movistar Conecta Max produktu bat baino gehiago eduki. Conecta Max produktua bateraezina da Movistar Fusión zerbitzuarekin, eta, beraz, baja emango zaio kontratatuta aurretik.

3.IRAUNALDIA.

Baldintza hauek kontratatzen den egunean jarriko dira indarrean, edo Movistar Conecta Max produktuaren alta ematen den egunean, alta hori beranduagokoa bada.

Hala ere, alta efektibo hori gertatzen ez bada, indarrean jarraituko du 6.2 klausulan xedatutakoak.

Movistar eta Bezeroaren arteko akordioak iraunaldi mugagabea izango du.

4. IRAUNKORTASUN-KONPROMISOAK

4.1. Iraunkortasun-konpromisoa

Movistar Conecta Max produktuaren edozein modalitate kontratatzean, ez da irauteko konpromisorik hartu behar, hurrengo 8. klausulan xedatutakoari kalterik egin gabe, Bezeroak Movistar-ekin hartutako bestelako konpromisoei dagokienez, horrelakorik badu.

4.2.- Kontratu modalitateen aldaketak

Salbuespen gisa, sarbiderako estaldurarik ez balego ez zuntz ez kobre bidez, Movistar-ek aukera gisa eskaini ahal izango dio bezeroari Conecta Max sobre Acceso Fijo Radio zerbitzua, baldintzak egokiak badira. Halaber, bezeroak espresuki baimendu beharko du instalazioa.

5. PREZIOA, FAKTURAZIOA ETA ORDAINKETA.

5.1. Prezioa.

Kontratutako Movistar Conecta Max modalitatean sartutako zerbitzu guztien ordain gisa, Bezeroak kontratu honen azalean dagoen eta modalitate horri dagokion prezioa ordaindu beharko du.

Bezeroak kontratatutako modalitatean sartutako dei-bonoak gastatu ondoren -horrelakorik badago-, Movistar-ek indarreko prezioak ezarriko ditu zerbitzu bakoitzean. Prezio horiek eskuragarri eta behar bezala eguneratuta daude www.movistar.es orrian, Harrera pertsonaleko **1004** zenbakian eta Erantzun profesionaleko **1489** zenbakian. Bezeroak aukera izango du ezar daitezkeen prezioei buruzko informazioa edozein unetan eskatzeko, eta doan eta idatziz jasotzeko.

Movistar Conecta Max Paketeen sartutako linea mugikorraren gainean fakturatu daitezkeen eta Bezeroak kontratatuta dituen Movistar Conecta Max modalitateko prestazioen artean ez dauden kontzeptuetarako, Katalogoko prezioak aplikatuko dira. Prezio horiek lehen deskribatutako bitartekoen bidez ere kontsultatu eta eskuratu ahal izango dira.

Era berean, Bezeroak Movistar Conecta Max modalitatean sartuta ez dauden TB-ren eduki gehigarriak kontratatuz gero, TB kontratuan ezarritako prezioak aplikatuko dira, eta ondoko klausuletan xedatutakoari jarraiki fakturatuko zaizkio.

5.2. Fakturazioa eta ordainketa. Faktura elektronikoa.

Emandako zerbitzuen fakturazioa Telefónica de España, S.A.U.-k egingo du hilean behin, dagokion aldia edo aldiak berezita adieraziz, eta kontzeptu hauek sartuta:

- i) Movistar Conecta Max-en sartutako zerbitzuak
- ii) Movistar Conecta Max-en sartutako zerbitzuak gainditzen dituzten Conecta Max Linea Mugikor Nagusiaren zerbitzu gehigarriak, bai eta, hala badagokio, bezeroak alta eman dion linea nagusia ez den Conecta Max linea mugikorra ere, horretarako aukera ematen duten modalitateetan
- iii) hala badagokio, kontratatutako telebistako eduki gehigarriei dagokien zenbatekoa

Klausula honetan xedatutakoaren arabera igorritako lehen fakturan Movistar Conecta Max produktuaren hileko kuota hainbanatuko da, kontratazioaren datara egokitzeko.

Emandako zerbitzuaren zenbatekoa dagokion faktura kobratzera aurkezten den unetik aurrera eskatu ahal izango da. Faktura hori Bezeroak edo hirugarren batek ordainduko du, Movistar-ekin sinatutako telekomunikazio finkoen zerbitzuak emateko kontratuan horretarako adierazitako Banku-erakundearen edo Aurrezki-kutxaren kontuaren bidez, edo, halakorik ezean, Movistar Conecta Max kontratatzean horretarako izendatzen duen kontuan, azken hau aurretik adierazi izan duen beste edozeinen gainetik gailenduz. Aurrekoa gorabehera, bezeroak beste bide bat eskatu ahal izango du ordaintzeko.



Horretarako, bezeroak aitortu eta berretsi egiten du bere garaian zerbitzu horiei dagozkien fakturak kobratzeko emandako agindua, orain arte kobrantza hori egin duen ordainketa-kontuaren bidez, eta, orain, Telefónica de España S.A.U.-ri berariaz baimena ematen dio kontratatutako Movistar Conecta Max zerbitzuari eta Conecta Max linea mugikorrek soberakinei dagozkien fakturak kobratzeko, telekomunikazio finkoko zerbitzuak emateko Kontratuan bezeroak adierazitako kontuaren bidez.

Edozein kasutan, bezeroak onartu eta berretsi egiten du zerbitzu horiei dagozkien fakturak kobratzeko agindua, klausula honetan adierazitakoaren arabera izendatutako kontuaren bidez.

Movistar Conecta Max kontratatuz gero, Bezeroak ezinbestez onartu beharko du faktura formatu elektronikoa jasotzea, nahiz eta kontratazioan faktura orrian jasotzea aukeratu ahal duen. Onarpen horrek fakturazioa formatu elektronikoa Bezeroak Telefónica de España, S.A.U. enpresarekin kontratatu dituen eta Movistar Conecta Max enpresaren fakturan sartzen diren Movistar produktu finko guztietara hedatu behar dela dakar berekin. Aurrekoari kalterik egin gabe, Bezeroak edozein unetan aukeratu ahal izango du faktura paperean jasotzea, **1004** Arreta pertsonaleko zenbakira edo **1489** Erantzun profesionaleko zenbakira deituz. Bezeroak, kontratazioan edo geroagoko edozein unetan, Movistar Conecta Max produkturako paperezko faktura edo, hala badagokio, formatu elektronikoko faktura jasotzea aukeratzen badu, hautatutako aukerak bertan sartzen diren produktu eta zerbitzu guztietara zabaltzea dakar berekin.

5.3. Telefónica de España, S.A.U.-ren eta Telefónica Móviles España, S.A.U.-ren karguen aurkezpena.

Movistar Conecta Max zerbitzuan baja emanez gero, bezeroak zerbitzu mugikorra mantendu ahal izango du. Kasu horretan, Telefónica Móviles España, S.A.U.-k kudeatuko ditu kontratua eta fakturazioa, Conecta Max Linea Mugikor Nagusiari eta linea mugikor erabilgarriei dagokienez.

5.4. Kreditu-informazioko sistemak

Halaber, ordaindu ezean, zorrari buruzko datuak kreditu-informazioko sistemak kudeatzen dituzten erakunde hauei jakinarazi ahal izango zaizkie: ASNEF, EQUIFAX IBERICA, S.L. merkataritza-enpresak kudeatzen duen sistema; BADEXCUG, Experian Bureau de Crédito, S.A. merkataritza-enpresak kudeatzen duen sistema, eta BEZEROARI behar bezala jakinarazten zaion beste edozein.

6. BAJA MOVISTAR CONECTA MAX PRODUKTUAN.

6.1. Movistar Conecta Max zerbitzuan baja emateko arrazoiak.

Hona hemen Bezeroak Movistar Conecta Max zerbitzuan baja emateko arrazoiak:

- Bezeroak Movistar Conecta Max zerbitzuan edo hura osatzen duten elementuren batean (telefono-linea finkoa, ADSL/Zuntza/Acceso Fijo Radio, TB, hala badagokio, edo linea mugikor nagusia) baja emateko eskaerak Movistar Conecta Max zerbitzuaren erabateko baja ekarriko du berekin.- Era berean, aipatutako edozein zerbitzu behin betiko eteteak Movistar Conecta Max zerbitzuan baja ematea ekarriko du.
- Halaber, zerbitzu horietako bat ez ordaintzeagatik behin betiko eteten bada, Movistar Conectar Max-en baja emango da.
- Titularra aldatzeagatik, telefono-linea finkoa, ADSL/Zuntza/Acceso Fijo Radio, Conecta Max linea mugikorra, pertsona fisiko edo juridikoaren identifikazio zenbaki berarekin (NAN/IFK/Egoiliar-txartela/Pasaporte/NIE/NIVA) kontratatu gabe egonez gero, Movistar Conecta Max produktuen baja guztatzeko da.

Bezeroak Conecta Max Linea Mugikor Nagusian baja ematen badu, baina beste Conecta Max linea mugikor bat erabilgarri badu, horretarako aukera ematen duten modalitateetan, aktibatutako linea mugikor erabilgarriak baja emandako linea nagusiaren lekua hartuko du.

Bezeroak baja eman ahal izango du Movistar Conecta Max produktuan une oro, Movistar-i edozein bide frogagarriren bidez jakinarazita, eragina izan behar duen data baino gutxienez bi egun baliodun lehenago.

Horretarako, hauek izango dira erabili ahal izango diren bideak:

- Faxa 902 104 132 zenbakira.
- Gutuna helbide honetara: 1000 posta-kutxa. 08080. Bartzelona.
- Telefonoz, **1004** Arreta pertsonaleko zenbakian edo **1489** Erantzun profesionaleko zenbakian.

6.2. Bajaren ondoriozko aldaketak.

Bezeroak Movistar Conecta Max uzten badu baina produktua eratzten duten zerbitzuak uzten ez baditu (telefono-linea finkoa, ADSL/Zuntza/Acceso Fijo Radio, TB eta/edo linea mugikorrek) edo, Movistar Conecta Max kontratatu ondoren benetako altarik egiten ez badu, alta emanda jarraitzen duten zerbitzuak emango zaizkie, bere kontratuko baldintzei eta jarraian agertzen den Katalogoko prezioei jarraiki, edo horien ordeztarritako prezioei jarraiki. Azken hauek www.movistar.es helbidean daude eskuragarri, eta **1004** Arreta pertsonaleko zenbakian edo **1489** Erantzun profesionaleko zenbakian ere eskura daitezke. Bezeroak baja ematean merkatuan daudenen artean aukeratzen duen beste edozeini kalterik egin gabe:

Zerbitzu finkoei dagokienez (telefono-linea finkoa, ADSL/Zuntza/Acceso Fijo Radio) mugikor-zerbitzuan baja guztatzeko:

Conecta Max Bezeroak (ADSL Máxima Velocidad eta Acceso Fijo Radio): Movistar ADSL Máxima Velocidad zerbitzuaz gozatzera pasatuko dira, deiekin edo Movistar Internet Radio-rekin deiekin, hurrenez hurren, [kuota 38,85 €/hil (47,00 €/hil BEZa barne) eta linea finkoaren kuota indarrean dagoen tarifaren arabera: 14,38 €/hil (17,40 €/hil BEZa barne) une honetan].

Cientes Conecta Max TV box (ADSL Máxima Velocidad): Movistar+ 0 zerbitzuaz gozatzera pasatuko dira [kuota 42,98 €/hil, (52,00 €/hil BEZa barne) eta linea finkoaren kuota indarrean dagoen tarifaren arabera: 14,38 €/hil (17,40 €/hil BEZa barne) une honetan].

Cientes Conecta Max (Fibra 600 Mb): Movistar Fibra Óptica 600 Mb zerbitzuaz gozatzera pasatuko dira (kuota 47,11 €/hil (57,00 €/hil BEZa barne) eta linea finkoaren kuota indarrean dagoen tarifaren arabera: 14,38 €/hil (17,40 €/hil BEZa barne) une honetan].

Cientes Conecta Max TV box (Fibra 600 Mb): Movistar+ 0 con Fibra Óptica 600 Mb zerbitzuaz gozatzera pasatuko dira (kuota 51,24 €/hil (62,00 €/hil BEZa barne) eta linea finkoaren kuota indarrean dagoen tarifaren arabera: 14,38 €/hil (17,40 €/hil BEZa barne) une honetan].

Movistar Conecta Max kontratatu ondoren benetako altarik egiten ez bada, Bezeroak zerbitzu finko bakoitzean dituen iraupen-konpromisoei eutsiko zaie, halakorik badu, haien Baldintzetan ezarritakoari jarraiki, eta geratzen zaien denboran zehar.

Zerbitzu mugikorrei dagokienez:

Movistar Conecta Max-en Linea Mugikor Nagusia: Edozein ordutan eta edozein operadoreko finko eta mugikorretarako dei mugagabeak, dei-earpena, SMSak eta abiadura handiengan nabigatzeko 30 GB hiler barne hartzen dituen kontratu mugikorra izatera pasatuko dira, 45 €/hileko prezioan (BEZa barne). Behin datuen frankizia gaudituta, Bezeroak abiadura handiengan nabigatzen jarraituko du erabilitakoagatik ordaintzeko modalitatean, 3 zent/MBeko prezioan, 4 GB gehigarri arte. Behin frankizia eta erabilitakoagatik ordaintzeko modalitateko 4 GB gehigarriak gaudituta, abiadura murriztuan nabigatzen jarraitu ahal izango da. 10 €-ko erabilitakoagatik ordaintzeko modalitateko gehieneko zenbatekoa ezartzen da nabigazioan, aldatu ahal izango dena doan deituta 223528 telefonora, Mi Movistar aplikazioan edo **1004** zenbakira deituta. Bezeroak zenbateko hori 0 €-tan ezartzeko aukera du; kasu horretan, ez zaio erabilitakoagatik ordaintzeko modalitateko ordainketa aplikatuko abiadura handiko 4 GB gehigarriak berriro eskatzen ez dituen arte. Nabigazioan erabilitakoagatik ordaintzeko modalitatearen



zenbatekoa behin aldatu ahal izango da fakturazio-epe bakoitzeko.

Movistar Conecta Max-en erabilgarri dagoen Linea Mugikorra (Movistar Max TV box modalitatean bakarrik dago sartuta): Edozein operadore eta edozein ordutan finkoetara eta mugikorretara deiak hartzen dituen kontratu mugikorraz gozatzen pasatuko da. 0 zent./min., dei-earpena 40 zent. (BEZa barne) eta nabigazioa abiadura handiengan erabilitakoagatik ordaintzeko modalitatean.

Aurreko kasu guztietan, Baldintza hauetako 10. klausulak indarrean jarraituko du.

7. MOVISTAR CONECTA MAX PRODUKTUAREN ETENDURA.

7.1. Etendura ez ordaintzeagatik.

Movistar Conecta Max produktuaren fakturazioari dagokion kargu-agiria kobratzeko aurkeztu zenetik hilabete baino gehiagoz bezeroak zor dituen zenbatekoak, osorik edo horien zati bat, berandu ordaintzen baditu, Movistar eta Telefónica Móviles España, S.A.U. enpresek eskubidea izango dute, Bezeroari alde aurretik jakinarazita, telefono-zerbitzu finkoa, banda zabaleko zerbitzua (ADSL/Zuntza/Acceso Fijo Radio), TB zerbitzua, hala badagokio, eta Movistar-en komunikazio mugikorren zerbitzua eteteko.

Movistar-ek goian aipatutako zerbitzuen etendura jakinaraziko dio Bezeroari, etendura gertatu baino gutxienez 15 egun lehenago. Jakinarazpen horretan bertan, Movistar-ek adieraziko du, ordainketa egiten ez bada, zerbitzuaren etendura data, ezingo dena egun baliogabean gauzatu.

Komunikazio elektronikotzat hartu gabeko zerbitzuak ez ordaintzeak ez du gainerakoak etetea eragingo, betiere komunikazio elektronikoen zerbitzuei dagokien fakturaren zatia ordaintzen baldin bada. Kasu horretan, bezeroa fakturarekin ados ez baldin badago, eskubidea izango du, alde aurretik eskatuta, faktura independenteak eskuratzeko.

Halaber, baldin eta Bezeroak kontratatu dituen TB eduki gehigarriak ordaindu ez balitu, Movistar-ek TB hornitzeko zerbitzu hori eten egingo luke.

Movistar-ek etendako zerbitzuak berrezarriko ditu zor den zenbatekoa ordaindu dela jakiten duen egunaren hurrengo lanegunean, eta Bezeroari 25 euro (30,25 € BEZa barne), kobratuko dio zerbitzuak birgaitzeagatik.

7.2. Behin betiko etetea ez ordaintzeagatik.

Emandako zerbitzuen ordainketa hiru hilabete baino gehiagoz atzeratzen bada edo kontratuari dagozkion zerbitzuak bi aldiz eten badira ordainketa berandutzeagatik, Movistar Conecta Max osatzen duten zerbitzuak behin betiko etengo dira: telefono-zerbitzu finkoa, banda zabaleko zerbitzua (ADSL/Zuntza/Acceso Fijo Radio), TB zerbitzua, hala badagokio, eta Movistar-en komunikazio mugikorren zerbitzua.

8. MOVISTAR CONECTA MAX PRODUKTUAREKIN BATERAGARRIAK DIREN IRAUNKORTASUN-KONPROMISOAK

8.1. Linea mugikorrari buruzko konpromisoak.

Linea mugikorrei dagokienez, Movistar Conecta Max kontratatu aurretik eta gailu mugikor bat erosteari lotuta dagoen edozein iraunkortasun-konpromiso indarrean mantenduko da hitzartutako epea bete arte, eta dagokion penalizazioa sortuko da linea horri Movistar-en baja ematen bazaio edo aplikagarri zaizkion beste edozein baldintza betetzen ez bada.

8.2. Gainerako konpromisoak.

Klausula honetan aipatutako kasuez gain eta 6.2 Klausulan zehaztutako Movistar Conecta Max produktuan Bezeroari baja ematen zaioneko edo benetan alta ematen ez zaioneko kasuez gain, Movistar Conecta Max kontratatu aurretik zeuden gainerako konpromiso-kontratuak (I) mugikorrek linean (edo lineetan), (II) linea telefoniko finkoan, (III) TBan eta/

edo ADSLan bertan behera utziko dira Bezeroak kostu gehigarriak ordaindu behar gabe.

9. DATU PERTSONALEN BABESA.

Movistar-ek jakinarazten du bere bezeroen datuak Movistar-en Pribatutasun-politikan ezarritakoaren arabera tratatuko direla, zeinaren oinarriko informazioa klausula honetan jasotzen den. Horren eduki osoa esteka honetan kontsulta daiteke: www.movistar.es/privacidad, ale bat eskatuz **1004** telefonoan edo Movistar dendetan.

Datu pertsonalak babesteko Europako araudiarekin bat etorritik eta Politika horretan ezarritakoaren arabera, Telefónica Taldeko enpresa hauek Movistar Bezeroaren datu pertsonalen tratamenduaren erantzunkide dira, kontratatuta dituen produktu eta zerbitzuen arabera: Telefónica de España, S.A.U. eta Telefónica Móviles España, S.A.U. (aurrerantzean eta guztiak batera, klausula honetan zehaztutako xedeetarako, "Movistar").

Movistar-en, bezeroaren datuak Zerbitzua emateko tratatuko ditugu, bai eta, Movistar bezero gisa, Pribatutasun-politikan jasotako baldintzetan ahalbidetzen edo baimentzen dizkigun beste helburu batzuetarako ere. Politika horretan, gainera, bezeroak bere baimena behar duten beste tratamendu batzuei buruz erabaki ahal izateko behar duen informazio guztia jasotzen da.

Kontratua gauzatzeko bezeroak egintza honetan aurkeztu dituen datu pertsonalak, Zerbitzua emateagatik lortutakoekin batera, eta arreta-eta merkaturatze-kanalen bidez lortutakoekin batera, Movistar-en titulartasunpeko datu pertsonalen fitxategi informatizatuetan sartuko dira.

Pribatutasun-politikan jasotako tratamenduz gain, Zerbitzua erabiltzeko termino eta baldintza hauek onartzean, Bezeroari jakinarazi zaio eta baimena ematen dio MOVISTAR-i Movistar Conecta Max kontratatzeak berekin dakartzen zerbitzuak emateko baldintzetan zehaztutako datuak berariaz tratatzeko (telefono-linea finkoa, banda zabaleko zerbitzua eta linea mugikorra), zehazki, bezeroaren datuak, kontratatutako zerbitzuak, fakturazioa, trafikodatuak, web-bisitak eta kokapena; datu hauen tratamendua Zerbitzua emateko eta kontratua gauzatzeko beharrezkoa da. Bestetik, Pribatutasun-politikan aurreikusitako beste helburuetarako, Movistar-ek datuen erabilera bere kofiantzazko hornitzaileei esleitu ahal izango die. Hornitzaile horien kategorien eta beren eginkizunak betetzean nazioarteko datu-transferentziak egiten dituztenen zerranda eguneratua hemen jasotzen da:

www.movistar.es/privacidad/info-adicional.

Era berean, Movistar-ek datu horien isilpeko tratamendua bermatzeko behar diren neurriak hartuko direla bermatzen du, eta, araudi horren arabera, datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, aurkartzeko eta transferitzeko eskubideak baliatzeko aukera duela jakinarazten dio. Horretarako, mezu elektronikoa bat bidali behar da TE_datos@telefonica.com helbidera, DATUAK erreferentziarekin, gutun bat bidali 46155 Posta-kutxa, 28080 Madril helbidera, edo doako 224407 telefono-zenbakira deitu.

10. ZERBITZUEN ERABILERA EGOKIA.

Bezeroak Zerbitzuak barne hartzen dituen prestazioen eta zerbitzuen erabilera egokia egiteko konpromisoa hartzen du, baita MOVISTAR-ek ematen dizkion lotutako beste edozein zerbitzuen ere. Bezeroa izango da erantzule MOVISTAR-en aurrean MOVISTAR-i edo hirugarrenei kalte-galeren bat eragin diezaikeen erabilera okerragatik, MOVISTAR-en edozein zerbitzuren erabilera izaera pertsonaleko komunikazioetatik irtetzen bada bezero partikularren kasuan edo zerbitzu horien birsalmenta edo merkaturatzea suposatzen badu.

Baldintza hauetan aurreikusten den erabilera ezberdina berekin dakartenei kalterik egin gabe, honako hauek erabilera egokiaren kontratatzat hartuko dira, besteak beste:

1. Deiak desbideratzeko zerbitzuen zenbakietara zuzendutako deiak, trafikoen kontzentrazioa edo eraldaketa berekin dakartenak, baita 908



edo Sare adimenduneko zenbakietara (zenbakitze bereziak: Oxy, zenbaki laburrak, m2m zenbakitzea, etab.) zuzendutako deiak ere.

2.Espresuki kanpo uzten da eta erabilera okerreko kasuzat hartzen da horren erabilera telefonoguneetan, SIMBOX-etan, trafikoa kontzentratzeko edo eraldatzeko bestelako elementu batzuetan, edo dei masiboak egiteko edo trafikoa birbideratzeko zerbitzuak emateko sortutako elementuetan.

3.Halaber, debekatuta gelditzen da SMSen erabilera bidalketa masiboak ahalbidetzen dituen aplikazio edo gailu bati konektatuta bada (adibidez, modem bat) edo, orokorrean, SMSen bidalketa kontratu honetan zehaztutakoaren helbuetatik kanpo gelditzen bada.

4.Bezeroak ezingo du Zerbitzuaren birsalmatarik egin. Ezingo du Zerbitzua komertzialki ustiatu ezta etekin ekonomikorik jaso (ez zuzena ezta zeharkakoa ere) Zerbitzua edo horren gaitasun edo funtzionalitatearen bat birsaltzeagatik.

5.Ezin izango dira zuzendu zerbitzuak eskaintzen dituen aukerak (edozein prestazio eta erabilera motan) urrutiko entzute- edo zaintza-helburuetara, ezta partikularren arteko komunikazioa ezartzeko helburua ez duen edozein konexiora ere, horren iraupena edozein dela ere.

Sare-pilaketa bat ematekotan, P2P eta zuzeneko deskargen atariei dagokion trafikoa gainerako trafiko motei baino lehentasun txikiagoa eman ahal izango zaie.

6.Ibiltaritari buruzko Europako Erregelamenduan zehaztutakoaren arabera, erabilera oker, gehiegizko erabilera edo iruzurrezko erabileraren bat hautematen bada, errekargu bat ezarri ahal izango da Ibiltaritzaren 1. gunean edo EB gunean. Halaber, hurrengo paragrafoan adierazitako kasuren bat ematen bada, aplikagarriak diren edozein jarduketa ezarri ahal izango dira, deskribatutako helburu-adierazleetan oinarritutako kontrol-mekanismoak aplikatuz.

Honako hau hartuko da "zentsuzko erabilera-politika" gainditzen duen erabileratzat:

- Bezeroak EB eta EEE Ibiltaritzan izandako presentzia eta kontsumo nagusia, presentzia eta trafiko nazionalarekin alderatuta.

- Gehienbat Ibiltaritzaren erabilerari lotutako SIM txartelen inaktibitate luzea.

- Bezero beraren SIM txartel anitzen erorketa eta erabilera sekuentziala Ibiltaritzan.

- Movistar-en SIM txartelen birsalmata antolatua

7.Espainiako edo Europako araudiaren kontra doan edozein erabilera. Adibidez, zerbitzua kontratatzeke momentuan indarrean zegoen edukari, jabetza intelektualari, segurtasunari edo pribatutasunari buruzko araudietan zehaztutakoa urratzea.

Aipatutako kasu guztietan, baita zerbitzurako aurreikusitako komunikazio partikularreko helburua betetzen ez duen edo urratzen duen beste edozein kasuetan ere, MOVISTAR-ek Zerbitzua gelditzeko edo behin betiko eteteke eskubidea gordetzen du (eta, hala nahi izatekotan, hura berrezarri ahal izango du MOVISTAR-ek bezeroari eskatutako bermeak eskuratzean), baita Zerbitzuaren erabilera egokitik kanpo ematen den edozein motako trafikoa kobratzeko eskubidea ere (SMSak, deiak, datuak, etab.). Kasu honetan, momentu bakoitzean indarrean dagoen erabilitakoagatik ordaintzeko modalitateko prezio estandarrean tarifikatuko da, Telefónica Móviles España, S.A.U.-ren prezioen katalogoaren arabera, www.movistar.es webgunean dagoena argitaratuta eta erabilgarri, guztiz eguneratuta kontsultatzeko. Kasu horietan ez da aplikatuko uneko edo etorkizuneko edozein zerbitzuren prezioaren murrizketa berekin dakarren Zerbitzuari edo beste edozein promoziori lotutako prezioaren murrizketarik, trafiko-frankiziarik edo aurrezki-modulurik.

Aurrekoa alde batera utzita, eta deskribatutakoaren arabera zerbitzuaren erabilera okerra ematekotan, etorkizuneko antzeko erabilerak aurreikusita, MOVISTAR-ek, alde aurretik jakinarazita, Bezeroari erakutsitako erabilerapatroiekin hobetoen datorren tarifa-modalitatea esleitzeko aukera ere gordetzen du, komertzialki erabilgarri dauden aukeren artean Bezeroak modalitate egokiago bat dagoelaren usteari kalterik egin gabe.

11. MOVISTAR CONECTA MAX PRODUKTUAREN ALDAKETA.

Bezeroak konpromisoa hartzen du kontratuko datuetan gertatzen diren aldaketen berri emateko Movistar-i, batez ere fakturazio-helbideari eta ordaintetako helbideratzeko banku-kontuari dagozkionak.

Movistar-ek, Alderdien arteko prestazioen oreka berrezartzeko helburu

bakarrarekin, kontratuan zehaztutako baldintzak aldatu ahal izango ditu, eta, bereziki, horren prezioa. Horretarako, arrazoi hauetako bat izango du, Movistar-ek Zerbitzuaren tarifak finkatu eta geroagoko egoera baten ondorio direnean:

- Movistar sartuta dagoen enpresa-sektoreko kostuak handitzea, estaldura, sarearen kalitatea edo emandako Zerbitzuaren ezaugarriak hobetzeko.

- Zerbitzua emateko baldintzei eragiten dieten arau-aldaketak (zergak, tasak edo ebazpen administratibo edo judizialak barne).

- Kontsumorako prezioen indizearen (KPI) edo, horrelakorik ezean, prezio industrialen indizearen (IPRI) gehikuntza.

Movistar-ek edozein aldaketaren berri eman behar dio bezeroari dagokion arrazoi xedatuarekin, gutxienez, aldaketa gauzatu baino hilabete BAT (1) lehenago. Bezeroak eskubidea du kontratua penalizatorik gabe eteteke, bezeroak berak hartutako beste konpromiso batzuei kalterik egin gabe. Hilabete bateko epean Movistar-ek jakinarazpenik jaso ez badu, Bezeroak aldaketak onartzen dituela ulertuko da.

12. KONTRATUA LAGATZEA.

Kontratu honen xede den zerbitzua pertsonala da, baina bezeroak hirugarren bati laga diezaioke, Movistar-ek edo Telefónica de España, S.A.U.-k alde aurretik baimena eman ondoren. Telefónica de España, S.A.U.-k kontratu hau lagatu ahal izango du, bezeroari alde aurretik jakinarazita indarrean dagoen araudiaren arabera, eta bezeroak kontratua ebazteko izan dezakeen eskubideari kalterik egin gabe. Aurrekoari kalterik egin gabe, Movistar Fusión-en baja emanez gero, linea mugikorrei dagokion kontratuaren eta fakturazioaren kudeaketa Telefónica Móviles España-k egingo du berritoki.

13. BEZEROARENTZAKO INFORMAZIOA

13.1. Jakinarazpenak Bezeroari

BEZEROAK MOVISTAR-i egindako komunikazioak Bezeroarentzako Arreta Zerbitzura bideratu beharko dira, arreta komertzialeko zenbakiak erabiliz.

Kontratu honetan aurreikusitakoaren arabera eta hura betetzeko, BEZEROAK MOVISTAR-i egin behar dizkion jakinarazpenak telefono bidez egingo dira MOVISTAR-en arreta pertsonalerako zenbakien bidez, edo idatziz, kontratu honetan zehar eta, bereziki, 13.2. klausulan aurreikusitako posta-kutxetara edo posta-helbideetara.

MOVISTAR-ek BEZEROARI egiten dizkion jakinarazpenak eta komunikazioak modu hauetakoren batean egingo dira:

(a) kontratazioa egitean BEZEROAK horretarako adierazitako posta-helbidera bidalita. Adierazi ezean edo hasieran adierazitako helbidearen aldaketarik jakinarazi ezean, ondorio guztietarako, BEZEROAREN helbidea zerbitzua ematen den tokia dela ulertuko da, eta bat baino gehiago badira, horietako edozein;

(b) posta elektronikoz bidalita, ahal dela, BEZEROAK MOVISTAR-i horretarako ematen dizkion edozein helbide elektronikora;

(c) telefonoz edo SMS bidez jakinarazita, hala badagokio, bai BEZEROARI ZERBITZUA ematen zaion telefono-zenbakira, bai BEZEROAK ZERBITZUAN alta eskatzeko inprimakian adierazitako telefono-zenbakira, edo BEZEROAK, Baldintza honen arabera, geroago aldatutako telefono-zenbakira;

d) bezeroaren "Mi Movistar" gune pribatuaren bidez jakinarazita, zeina www.movistar.es webgunearen edo "Mi Movistar" aplikazioaren bidez atzi daitekeen, edo horien ordez erabiltzen diren izenen bidez.

Zentzu horretan, BEZEROAK adierazten du berak emandako datu guztiak egiazkoak eta zuzenak direla, eta konpromisoa hartzen du MOVISTAR-i bere etxean edo beste edozein helbide edo harremanetarako datuetan, kobrantza-datuetan eta MOVISTAR eta BEZEROAREN arteko kontratu-harremana kudeatu eta mantentzeko beharrezkoa den beste edozein informazioan gertatzen diren aldaketak jakinarazteko.

13.2. Arreta-kanalak



MOVISTAR-ek arreta-kanal hauek gaitzen ditu:

-Arreta pertsonala eta Aberien arreta:

•1004

•www.movistar.es

-Kontratazio-kanalak:

•1004

•www.movistar.es

•Movistar dendak

•Banaketa-kanalak:

-Erreklamazioak:

•www.movistar.es

•1004

•C/ Gran Vía 28, 28013, Madril.